

4.15. Material xurgatzailea

1. Alderdi orokorrak

1.1. Zer hartzen du barne

Osasunaren sektore publikoak (hasi ospitaleetatik eta osasun-zentro, haurtzaindegi, zentro geriatriko eta abarreraino) egunero erabiltzen dituzten inkontinentziagatik jarritako edo exudatuak (sendaketetan) xurgatzeko materialak.

Fitxa honetan, material sanitario xurgatzaile hauetarako ingurumen-irizpideak ematen dira:

- Eskuzapi eta konpresa sanitarioak.
- Eginkari- eta/edo gernu-inkontinentziarako pixoihalak, biltzaileak eta aposituak.
- Babesgarri xurgatzaileak (aulki, ohatila, ohe eta abarrerako).

Gasa xurgatzaileak, kotoiak eta antzeko beste produktu sanitario batzuk ez dira fitxa honen xede, irizpide hauetako gehienak haietan ere aplikagarri diren arren.

1.2. Non gaude

Sektore publikoak zein pribatuak, eta oro har herritarrek, produktu xurgatzaile sanitario asko eta asko erabiltzen dituzte. Gehienak erabili eta botatzekoak direnez, hiri-hondakin solidoen zati handi bat material horien hondakinak dira, eta hala ere, ez zaie beharrezko arreta ematen. Kalkulu batzuen arabera, haurtzaindegiak udalerriko hondakin guztien % 1,60 dira (pisa), eta % 3-4 bitarte izatera irits daitezke helduen inkontinentziarako produktuak ere kontuan hartuz gero¹.

Erabili eta botatzeko material xurgagarrien hondakinen arazoaren muina birziklatzeko zailtasuna da, tekniko nahiz ekonomikoa. Lehenengo zailtasuna produktu horietako batzuen (adibidez, pixoihal, konpresa edo aposituen) osakeraren eta diseinuaren ondorioa da; izan ere, egitura oro har konpaktua (berezitzen zaila) eratzen duten material desberdineko (plastikoak, zelulosazkoak, kotoizkoak) zenbait geruza izan ohi dituzte, eta material horiek, era berean, beste produktu edo substantzia batzuk (xurgapen-gaitasun handiko polimeroak, itsasgarriak, gomak...). Eta bigarrena, erabilitako produktu horiek hondakin organikoak (txiza, odola, eta abar) izan ohi dituztela.

¹ ENT, 2007 in González A. (ENT, Environment and Management) Comunicación técnica «Pañales reutilizables como estrategia de prevención de residuos». CONAMA. 2009.



Osasun-sisteman duten pisu handia —inpaktu ekonomikoaren terminoetan² ere neur daiteke—, eta administrazioaren jokaerak eredugarri izan behar duela pentsatzeak (trakzio-indar eta indar biderkatzaile handia du sektore pribatuan eta baita gizartean ere) eraman gaitu produktu-talde horretarako ingurumen-irizpideak aintzat hartzearen egokitasuna planteatzera.

1.3. Nola jokatu

Material sanitario xurgatzaileek dituzten ingurumen-inpaktuak gutxitzeko neurrien ardatz nagusiak hauek dira:

- Erabili eta botatzeko produktuak nahiz produktu berrerabilgarriak erosteko gero eta ingurumen-irizpide zorrotzagoi jarraitzea, eta
- ahal den aplikazioetan, gero eta produktu berrerabilgarri gehiago erabiltzea.

Horrez gainera, alderdi hauek ere kontuan hartu behar dira:

- Egoera bakoitzerako material xurgatzaile egokiena erabiltzea.
- Material berrerabilgarrien garbitze-prozesuaren (garraiatu, garbitu, lehortu eta berrerabiltzeko entregatzea) inpaktuak gutxitzea.
- Hondakinak ongi kudeatzea.

² Herrialde garatuetan, inkontinentziaren kostu ekonomikoa aurrekontuaren % 2koa dela kalkulatu da, eta portzentaje horretatik, % 90a osagarriei dagokie, ez botikei. Hu TW eta Newman DK. *in Iglesias-Regidos J. et al.* «Evaluación de la calidad de los absorbentes de incontinencia urinaria». TEMPUS VITALIS. Revista Electrónica Internacional de Cuidados 8. alea, 2 zk., 2008.

2. Jardunbide egokiak

2.1. Nola murriztu kontsumoa

Material sanitario xurgatzaile gutxiago kontsumitzeko aplikatu behar diren neurriek bi noranzko dituzte: 1) horrelako produktuak behar dituzten aplikazio espezifikoetan soilik erabiltzea, eta 2) produktu berrerabilgarriak erabiltzea.

Lehenengoa begien bistako da, baina, hala ere, nabarmendu behar da bi noranzko dituela, hau da, horrelako produktuak behar denean soilik erabili behar direla, eta modu egokian erabili behar direla, xurgatze-beharren eta produktuaren ezaugarrien arabera³.

Produktu berrerabilgarriak erabiltzeari dagokionez, lehenbizi, halako produktuak hornitzen dituenik baden ikertu behar da, eta, halaber, erabiltzeko behar diren baldintzak (esate baterako, moldagarritasuna, xurgatzeko gaitasuna, finkapena, tolerantzia, eraginkortasuna eta dis-krezioa) betetzen dituzten egiaztatu. Hortik abiatuta, produktu berrerabilgarriak aukeratuko ditugu, eta beharrak kalkulatu, ordezkoen ohiko kopuruaren arabera. Material berrerabilgarri erabiliak bildu eta gordetzeko, garbitu eta lehertzeko, eta berriro banatzeko sistema aurreikusi eta antolatu behar da, garbiketa geuk egin nahiz kanpoko enpresa batek egin, produktuen higie-ne-maila bermatzeko eta sistemaren ingurumen-eraginkortasuna eta eraginkortasun ekonomikoa maximizatzeko⁴.

51. KASUA: Donostiako Udala

Erabili eta botatzeko pixoihalak pixoihal berrerabilgarriez ordeztzeko proiektu pilotua jarri zuen abian Donostiako Udalak haurtzaindegi batean 2006an. Lehen-gai gutxiago kontsumitzea eta hondakin gutxiago sortzea zen helburua. Berrogei pixoihal berrerabilgarri erosita, erabili eta botatzeko 9.000 pixoihal kontsumitzea saihestu zuten 2006an⁵.

Ekimen hori hiriko haur-hezkuntzako gainerako zentroetara nahiz gerontologia-zentroetara zabaltzeko, pixoihal berrerabilgarriak garbitzeko zerbitzu berariazkoa sortzearen bideragarritasunari buruzko azterketa eskatu du Donostiako Udalak, zerbitzu horrekin lotutako gainkostua baita elementu mugatzaile nagusietako bat.

Informazio gehiagorako, ikus 30. Jardunbide Egokia.

Horrez gainera, material xurgatzaile berrerabilgarriak (bereziki pixoihalak edo antzerakoak) ama-etxeetan⁶ eta haur-hezkuntzako zentroetan, eta neurri apalago batean bada ere, egoitza geriatrikoetan, sartzeak lagundu egiten du produktu horiek familia-kopuru handi bati eza-gutzera ematen, eta, hala, areagotu egin daiteke produktu horiek etxean erabiltzen hasteko aukerak.

³ Gomendio batzuk dokumentu honetan aurki daitezke: *Guía de buen uso de absorbentes de incontinencia urinaria*. Galiziako Xunta, 2007 (28. orrialdea).

⁴ ENT Environment and Mangement aholkularitzak CONAMA 9-n aurkeztutako «Pañales reutilizables como estrategia de prevención de residuos» komunikazio teknikoan, Kataluniako Sant Cugat del Vallés udalerriko haurtzaindegien saiakuntza pilotua jasotzen da, eta ekimen horren inguruko datu ekonomikoak.

⁵ 2006ko azaroaren 3an Diario Vasco egunkarian «Pañales reutilizables» izenburupean argitaratutako prentsa-oharra. http://www.diariovasco.com/prensa/20061103/san_sebastian/panales-reutilizables_20061103.html.

⁶ *Using real nappies on maternity wards* argitalpen ingeleza ospitaleei, osasunaren alorreko profesionalei eta erakunde publikoei zuzendutako gida bat da, ama-etxean urratsez urrats pixoihal berrerabilgarriak sartzeko (hemen deskarga daiteke: <http://www.nappies.org/hospitalguide.pdf>).



2.2. Nola ezagutu benetako beharrak: adierazleak

Material xurgatzaileen erosketa-bolumena zein den jakiteko, erosten dituen produktu xurgatzaileen erregistroa, motaren arabera xehatua, eraman behar du administrazioak, eta produktu horien urteko erosketa-bolumena, kostu unitarioa, guztizko kostua eta erabiltzaile edo pazienten bakoitzeko kostua jaso behar ditu.

Hori guztia jakitea garrantzitsua da erakundeak produktu horien ondorioz sortzen dituen hondakinak kuantifikatzeko, produktu berrerabilgarriak sartzeari begirako beharren kalkulua egiteko (erabili eta botatzeko produktuekin ematen den zerbitzu bera emateko behar diren produktuen kopurua) eta sistema «dimentsionatzeko», baita sistemaren adierazle batzuk lortzeko ere, esate baterako hauek:

- Paziente edo erabiltzaile bakoitzeko erabilitako ale-kopurua, erabileren arabera xehatuta (espezifikotasunaren arabera, ikus «Nola kudeatu hondakinak?» atala) eta zenbait kasutan, eguneko eta gaueko erabilerak bereiziz.
- Material xurgatzaileekin sortutako hondakin-kantitatea (kg-tan).
- Sistema berrerabilgarriekin aurreztutako hondakin-kantitatea (kg-tan).

Erabili eta gero trataera berezirik behar ez duten hondakinak sortzen dituzten erabili eta botatzeko materialak dira produktu berrerabilgarriekin ordeztu daitezkeenak. Beraz, produktu horien kontsumoa ezagutzen badugu, material berrerabilgarriak zer mailatan erabil ditzakegun jakin ahal izango dugu, gutxi gorabehera, eta, hala, haiek murrizteko zer aukera dugun.

HONDAKIN-ADIERAZLEAK DONOSTIAKO UDALAREN KASUAN

2005-2006 ikasturterako datuen arabera, Prim kaleko udal-haurtzaindegia 40 haur-pixoihal erabili zituen, eta horri esker, 2.000 kg hondakin gutxiago sortu zituen ikasturte horretan⁷.

HONDAKIN-ADIERAZLEAK BARTZELONAKO PARE BATLLORI EGOITZA GERIATRIKOAREN KASUAN

Bartzelonako egoitza geriatrikoetan pixoihal berrerabilgarriak erabiltzeko bideragarritasun-azterketa eta proiektu pilotuan⁸ ikusi zuten xurgatzaile berrerabilgarriak erabiliz, 1,1 kg hondakin gutxiago sortu zituztela pertsona eta eguneko.

⁷ Datuak bi dokumentu hauek abiapuntu hartuta prestatu dira: Diario Vasco prentsa ohar bat (http://www.diariovasco.com/prensa/20061103/san_sebastian/panales-reutilizables_20061103.html) eta González A. (ENT Environment and Management) Comunicación técnica «Pañales reutilizables como estrategia de prevención de residuos». CONAMA. 2009.

⁸ Proiektua Bartzelonako Entidad Metropolitana enkargatu zuen. Gehiago jakin nahi izanez gero, kontsultatu Torras A. (Entitat Metropolitana de serveis hidraulics i del tractament de residus de Barcelona) Comunicación técnica «Investigando oportunidades de prevención de residuos». CONAMA. 2009.

2.3. Zer eta nola erosi

Material sanitario xurgatzaileen erosketa modu zentralizatuan egin ohi da, eta, beraz, alde horretatik erraza da ingurumen-irizpideak sartzea.

Zentro-motaren arabera, erositako produktu-sorta oso mugatua izan daiteke (haur-zentroetan, esaterako), edo, aldiz, oso zabala (ospitaleetan, esaterako), eta hornitzeko baldintza-orri beraren barruan sartu ohi dira, beste zenbait material sanitariorekin batera.

Kasu gehienetan, espezifikazio teknikoak ez dira asko izaten, eta ez da zehaztasun handirik ematen xurgatze-gaitasunarekin eta abarrekin lotutako alderdi edo araei buruz. Horregatik, ingurumen-eskakizunekin batera, kalitate-irizpideak sartzea komeniko litzateke, produktu baliokide guztiek gutxiengo bertsuak betetzen dituztela bermatzeko.

2.4. Nola kudeatu hondakinak

Haien osaera dela-eta, egun ez dago erabili eta botatzeko material xurgatzaileak berreskuratzeko prozesu teknikoki eta ekonomikoki bideragarririk, eta beraz, botatzeko material gisa kudeatu beste aukerarik ez dago.

Hondakin sanitarioak, zehazki, kategoriatan sailkatzen dira⁹:

- I. taldea: Hiri- edo udal-hondakinak.
- II. taldea: Hondakin sanitario espezifikoak.
- III. taldea: Hondakin kimikoak eta arau bereziak dituzten beste hondakin batzuk.

Zentro bakoitzean bertan (zentro barruko kudeaketa) zein zentrotik at (zentrotik kanpoko kudeaketa) kudeatzeko berariazko eskakizunak ditu ezarrita talde bakoitzak, eta bereziki zorrotzak dira II. eta III. taldeetarakoak.

Material xurgatzaileak erabili eta gero, eman zaien erabileraren arabera sailkatu behar dira, hau da, xurgatu duten substantziaren ezaugarrien arabera. II. taldekoak (material arriskutsuak: odola, txerto biziak, hondakin infekziosoak...) eta III. taldekoak (material zitotoxikoak, erradiaktiboak, substantzia kimikoak, botikak eta beste batzuk, pilak, adibidez) edukiontzi berezietan bildu behar dira, gero tratatzeko.

Material xurgatzaile asko eta asko I. taldekoak dira (sendaketa-materialak, odolez, sekrezioz edo eskrezioz zikindutako erabili eta botatzeko gasak, kotoiak, igeltsuak... betiere II. taldekoak ez direnak) eta beraz, hiri-hondakinen pareko hondakinekin batera kudeatu daitezke.

Osasunaren alorrekoak ez diren zentroetan, adibidez haurtzaindegi edo egoitzetan, pixoihal eta aposituak dira ohiko material xurgatzaileak, eta hortaz, hiri-hondakinen pareko hondakin gisa, eskakizun berezirik gabe, kudeatzen dira, higiene-kontuengatik prebentzio-neurriak hartu ohi diren arren.

Material berrerabilgarriak erabiliz gero, askoz hondakin gutxiago sortzen dira zentro bakoitzean. Dena den, material berrerabilgarriek ere balio-bizitza mugatua dute, hainbatetan garbitu eta gero, xurgatze-gaitasuna galtzen dutelako. Erabili eta botatzeko produktuekin duten alde nagusia da, gehienbat I. taldeko hondakinak izan arren, bota ordez, birziklatzeko enpresen bidez kudeatu daitezkeela, funtsean zuntzez osatuta daudelako (modeloaren arabera, zuntza estalki batera josita egon ala ez). Hori guztia kontuan hartuta, beraz, ehunezko material berrerabilgarri horiek bizi-amaieran higienizatzea gomendatzen da, eta jadanik erabiltzen ez diren arropak eta ehunezko beste produktu batzuk berreskuratzen diharduen enpresa bati entregatzea, beste erabilera bat emateko (esaterako, betegarriak, garbiketako zatarrak eta abar).

⁹ Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituen martxoaren 26ko 76/2002 Dekretua.



3. Kontuan hartu beharreko ingurumen eta teknika alderdiak

Material xurgatzaileen kasuan aintzat hartu behar diren ingurumen-alderdiek zuzeneko lotura dute fabrikatzeko erabiltzen diren materialekin. Pixoihal berrerabilgarriak gero eta gehiago erabiltzen hasi diren honetan, zenbait azterketa egin dira bi aukerak (erabili eta botatzekoak eta berrerabilgarriak) konparatzeko, bizi-zikloan eragiten dituzten inpaktuen ikuspegitik. Nolanahi ere, azterketa horietako bakar bat ere ez da erabakigarria, eta inpaktuak desberdinak izan daitezke aztertutako eskenatokiaren eta garbitze-prozesuko baliabide-kontsumoaren arabera.

Beraz, erabili eta botatzeko naiz berrerabiltzeko materialentzako ingurumen-irizpideak zehaztuko dira, alderdi hauek aintzat hartuta.

3.1. Zelulosa eta zelulosaren deribatuak erabili eta botatzeko materialetan

Zelulosa —gehienbat zuretik ateratzen da— bi eratan erabiltzen da erabili eta botatzeko xurgatzaileetan: ohiko zelulosa eran, eskuzapi, pixoihal, oheko biltzaile eta abarretan, edo biskosa eran (zelulosaren deribatua), batez ere tanpoietan.

Zuraren deribatua den heinean, zura ateratzen deneko basoen ustiaketaekin, paper-orearen fabrikatze- eta zuritze-prozesuekin eta produktuari akabera emateko prozesuekin daude lotuta inpaktuak.

Horregatik, baso-ustiapen iraunkorretatik datorren zura eta/edo zur birziklatua erabiltzea eta substantzia kloraturik gabe zuritutako eta distira-emaile optikorik gabeko produktuak erostera zuzentzen dira material hauetarako ematen diren irizpideak¹⁰.

3.2. Kotoia eta beste zuntz begetal batzuk erabili eta botatzeko materialetan

Kotoia eta beste zuntz begetal batzuk (kalamua, kasu) material xurgagarri gisa erabiltzen dira erabili eta botatzeko produktuetan. Zuntz begetalen kasuan, lehengaiaren landatze-prozesuan nahiz ehun-zuntz bilakatzeko prozesuan eragiten dira inpaktuak.

Material horiek ingurumenean eta osasunean dituzten ondorio kaltegarriak gutxitzeko, nekazaritza ekologikotik datozen zuntzen erabilera sustatu behar da. Monolaborantzan oinarritutako ohiko landare-ekoizpenak ur eta energia asko kontsumitzen dute, eta pestizida eta ongarrrien erabilera ere intentsiboa izaten da (hedaduraren aldetik, munduko zortzigarren laboreak¹¹ da kotoia —portzentaje handi bat genetikoki eraldatutako organismoetatik dator— eta pestizida gehien erabiltzen dituena, munduko produkzioaren % 10¹²). Nekazaritza ekologikoaren bidez nabarmen gutxitzen dira inpaktu horiek.

Horrez gainera, ekoizpen-prozesu osoan zehar, substantzia kimiko arriskutsuak erabiltzen dira zuntzak zuritu eta tratatzeko, eta horien erabilera ahal den gehiena mugatu behar da, narriadurak eta alergia ere saihesteko.

¹⁰ Hiru atal hauetako bakoitzari buruz informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu bulego-paperaren kapitulua Ihoberen *Erosketa eta kontratazio berdearen eskuliburuan*.

¹¹ *Options* aldizkaria. «Información para un consumo consciente». 18 zk. (10. orrialdea).

¹² Idem.

3.3. Polimeroak eta plastikoak

Material xurgatzaileek polimeroak eta substantzia plastikoak izaten dituzte, kanpoko geruza iragazgaitzean, hezetasuna kanpora ateratzea galarazteko (normalean polietilenoazko geruza izaten da) eta barneko geruza iragazlean (normalean, polipropilenoazkoa), likidoa xurgatzailean bizkor barneratzen eta larruazala lehor mantentzen laguntzeko¹³.

Produktu plastikoak direnez, ekoizteko behar den petrolioaren erazketatik eta ekoizte-prozesutik beretik datoz inpaktuak, substantzia arriskutsuak erabiltzen baitira.

Alde horretatik, beraz, konposatu eta material kaltegarrien erabilera gutxitu eta material birziklatu eta/edo biodegradagarrien (erabili eta botatzeko produktuen kasuan) erabilera sustatu behar dute irizpideek.

3.4. Xurgatzaileen beste produktu edo substantzia batzuk

Oinarriko materialez gainera, beste substantzia batzuk gehitzen zaizkie askotan xurgatzaileei, kontsumitzaileentzako erakargarriagoak izateko, guztiak beti baliagarri edo beharrezkoak ez izan arren. Horien artean daude, besteak beste, xurgatze-gaitasun handiko substantziak (xurgatze-gaitasuna handitzen duten polimeroak, baina produktuaren ingurumen-inpaktu ia guztiak areagotzen dituztenak)¹⁴, usaina kentzeko substantzia eta lurrinak edo larruazalarentzako lozioak, itsasgarri, velcro eta abarrez gainera.

Xurgatzaileen funtzioetarako funtsezkoak ez diren eta osasun eta ingurumenean eragin kaltegarriak dituzten produktuak eta substantziak gutxitzea da helburua kasu honetan.

3.5. Produktuaren kalitate-baldintzak

Material xurgatzaileak eraginkortasunez erosteko, eskaintza guztiek gutxieneko kalitate-baldintzak betetzen dituztela bermatu behar, gainontzean, guztiek Europako merkatuko CE baimena izan arren, horien kalitatea oso heterogeneoa delako¹⁵.

Hortaz, produktuak objektibotasunez erkatu ahal izateko, bete behar dituzten erreferentziako estandarrak eta balioak zehaztu behar dira baldintza-orrian. Arau horietan (erabili eta botatzeko edo berrerabiltzeko produktuentzako espezifikokoak) erabilera-erosotasuna, xurgatze-gaitasuna, hezetasun-itzulera edo erresistentzia aipatu behar dira, besteak beste¹⁶.

3.6. Bilgarrien ezaugarriak eta kudeaketa

Gainerako produktu-taldeetan bezala, bilgarria da ingurumen-alderdietako bat produktuen hornidurari dagokionez.

Oro har, bilgarrien inpaktua gutxitzeko estrategiak hauek dira: bilgarriak gutxitzea, eta garraiatzeko ontzi berrerabilgarriak erabiltzea eta lehen mailako bilgarriak banakakoak ez izatea sustatuz; bilgarrietan material ezberdin gutxiago erabiltzea, materialak errazago bereizi eta birziklatzea bermatzeko; eta plastiko halogenaturik gabeko eta material birziklatu askoko bilgarriak erabiltzea, plastikoa izan edo kartoia izan.

¹³ EDENA. *Sustainability Report 2007-2008. Absorbent Hygiene Products.*

¹⁴ S. Aumonier y M. Collins. *Life cycle assessment of disposable and reusable nappies in the UK.* Erresuma Batuko ingurumenaren agentzia. 2005.

¹⁵ J. et al. Evaluación de la calidad de los absorbentes de incontinencia urinaria. TEMPUS VITALIS. Revista Electrónica Internacional de Cuidados 8. alea, 2. zk., 2008.

¹⁶ Galiziako Xuntako Osasun Sailaren *Guía de buen uso de absorbentes de incontinencia urinaria* gidaren 1. eranskinean, material xurgatzaileen kalitatea zehazteko zenbait saiakera jasotzen dira.








4. Ingurumen ziurtagiriak

4.1. Ekoetiketa ofizialak

Material xurgatzaileetarako dauden etiketa ofizialak bata bestearengandik oso ezberdinak dira hiru alorrei dagokienez: estaltzen duten produktu-familia (pixoihalak, inkontinentziarako produktuak, konpresak, tanpoiak...), ziurtatzen duten produktu-mota (erabili eta botatzeko edo berrerabiltzekoa), eta ingurumen-eskakizunen maila.

Taula honetan, erakunde ofizialek ematen dituzten ingurumen-ziurtagiri garrantzitsuenak eta horien ezaugarriak jaso ditugu:

EKOETIKETA	LOGOTIPOA	PRODUKTUAK ETA IRIZPIDE NAGUSIAK
GREEN MARK (Taiwan)		<ul style="list-style-type: none"> — Haurrentzako pixoihalak. — Berrerabilgarriak. — Gutxieneko iraunkortasuna: 150 erabilaldi. — Gutxieneko kotoi edukia, % 50, distira-emaile optikorik eta formaldehidorik gabe.
ECO MARK (Japonia)		<ul style="list-style-type: none"> — Haurrentzako pixoihalak. — Berrerabilgarriak. — Ez du zehazten gutxieneko iraunkortasun-bermerik ez du ezartzen. — Gutxieneko kotoi edukia, % 50, distira-emaile optikorik eta formaldehidorik gabe, eta beste irizpideren bat gehiago substantzi kimikoen edukari buruz.
ENVIRONMENTAL CHOICE (Kanada)		<ul style="list-style-type: none"> — Haurrentzako pixoihalak. — Berrerabilgarriak. — 75 erabilaldiko iraunkortasuna eskatzen du soilik.
GOOD ENVIRONMENTAL CHOICE (Australia)		<ul style="list-style-type: none"> — Haurrentzako pixoihalak, inkontinentziarako produktuak eta konpresak. — Erabili eta botatzekoak. — Zenbait irizpide ezartzen ditu zelulosari (ECF edo TCF, distira-emaile optikorik gabe eta abar), polimero edo plastikoei (PVC eta phtalatorik gabe, eta material berriztagarriaren gutxieneko kopurua...), kotoiari (nekazaritza ekologikokoa eta ECF edo TCF), gaitasun xurgatzaile handikoei eta beste material batzuei buruz. Lurrin edo beste substantzia kimiko arriskutsurik ez izatea ere zehazten du oro har.
ZISNE NORDIKOIA (Eskandinavia)		<ul style="list-style-type: none"> — Haurrentzako pixoihalak, inkontinentziako produktuak, konpresak eta tanpoiak, ohe-estalkiak eta abar. — Erabili eta botatzekoak. — Ekoetiketa australiarraren antzeko irizpideak, baina zorrotzagoak. Beste alde bat da ekoetiketa honek zuntz birziklatuak baztertzeko dituela produktu hauetan, eta australiarrak berriz, ez.

4.2. Beste ziurtagiri eta logotipo batzuk

Kontratazioari begira baliagarriak izan daitezkeen beste ingurumen-ziurtagiri batzuk ere badaude material xurgatzaileen osagaiei dagokienez. Hauek dira garrantzitsuenak:

EKOETIKETA	LOGOTIPOA	PRODUKTU- EDO MATERIAL-MOTA
OEKO-TEX 100		Ehunezko produktueterako, ehunduak izan ala ez (kotoia, poliester, poliamidak, biskosa eta abar).
NEKAZARITZA EKOLOGIKOKOAK		Xurgatzaile berrerabilgarrien kotoi, banbu edo kalamuzko zuntzetarako.
FSC EDO PEFC		Zelulosarako eta/edo biskosa edo rayonarako.

Oharra: ikus beste ziurtagiri batzuk Ehun Gaietarako fitxan.

Hala eta guztiz ere, ez pentsatu horrelako ziurtagiriren bat duen azken produkturik aurkituko dugunik merkatuan. Oraingoz, ekoizleek erabiltzen dituzten materien ezaugarri batzuk egiaztatzeko balioko digute soilik.



5. Merkatuaren egoera: aukeran dagoen eskaintza

Ingurumenaren aldetik hobeak diren material xurgatzaile (erabili eta botatzekoak, berrerabiltzekoak) gutxi dago oraindik estatuko merkatuan.

Pixoihal berrerabilgarriak eta ingurumen-inpaktu kaltegarri txikiko erabili eta botatzeko emakumezko produktu higienikoak dira aurkitzen errazena.

Aurkitzen zailak dira, ostera, ingurumen-ezaugarriak eskuzapi, helduentzako inkontinentzia-produktu, ohe-estalki edo antzekoak. Atzerrian badaude horrelako produktuak egiten dituzten ekoizleak, baina horietako bakar batek ere ez ditu ziurtatuta bere produktuak lehen aipaturako ekoetiketa ofizialetakoren batekin. Horrek ez du esan nahi ingurumen-irizpiderik betetzen ez dutenik, baina asko zailtzen du zein diren jakitea.

Hori dela eta, horrelako produktuak erabili nahi dituen edozein erakundek merkatuan zer eskaintza dagoen ikertu behar du aldian-aldian, eta xurgatzaileak aurrez probatu behar ditu (berrerabiltzekoak badira), eman behar zaien erabilerarako gutxieneko kalitatea bermatze aldera.



6. Ingurumen irizpideak

6.1. Prozedura ireki bidez kontratatzeko irizpideak

Kontratazio-modalitate honetarako proposatzen diren irizpideak Ihoberen webgunean daude (www.ihobe.net). Produktu-talde honetarako, merkatuaren egoera ikusita, irizpide desberdinak proposatzen dira erabili eta botatzeko produktuentzat eta berrerabilgarrientzat, eta eskakizun-maila bakarra horietako bakoitzerako.

Irizpideei buruzko dokumentuetan, ingurumen-irizpideez gainera, esleipen-irizpideak eta eskaintza teknikoaren edukiaren inguruko irizpideak ere aurkituko dituzue. Eskaintzaileek informazioa nola aurkeztu behar duten zehazten duen azken atal horrek eskatu diegun informazioa errazago biltzeko balio du.

Kapitulu horren amaieran hornitzaileentzako *checklista* dago, eta baldintza teknikoen orriaren eranskin gisa erabiltzea proposatzen da, proposatutako ingurumen-irizpide bakoitza betetzen den nola frogatu edo egiaztatu jakiteko informazioa baitu.

6.2. Prozedura hitzarturako irizpideak

Prozedura hitzartu bidez kontratatzeko, prozedura irekirako ezarritako irizpide berak erabiltzea proposatzen dugu.

6.3. Zuzeneko erosketarako irizpideak

Ingurumena errespetatzen duten produktuak erosteko modurik errazena da 4. atalean zehaztu ditugun ekoetiketa ofizialeetakoren bat dutenak erostea, baina, kontua da gaur egun ez daudela merkatuan etiketa horien bidez ziurtatutako horrelako produktu asko.

Erabili eta botatzeko materialen kasuan, alderdi hauen inguruko informazioa eskatu eta aintzat hartu behar litzateke erosteko:

- Zelulosa baso-ustiapen iraunkorretako zur eta/edo zur birziklatutik etortzea.
- Zuritu gabea edo klororik gabe (TCF) zuritua izatea.
- Gehitutako lurrin, larruazalarentzako lozio edo usain-kengarririk ez izatea (inkontinentziako produktu batzuetan izan ezik).
- Kanpo-geruza iragazgaitzak plastiko halogenaturik ez izatea.

Material berrerabilgarrien kasuan, alderdi hauen inguruko informazioa eskatu eta aintzat hartu behar litzateke erosteko:

- Nekazaritza ekologikotik datorren kotoia edo zuntz begetala izatea.
- Zuritu gabea edo klororik gabe (TCF) zuritua izatea.
- Plastikozko estalkia plastiko halogenaturik gabea izatea¹⁷.
- Iraunkortasun handiagokoa izatea.

¹⁷ Etxean erabiltzeko, material oso ekologikoekin (adibidez, artilearekin) egindako beste estalki batzuk ere badaude, baina, agian, ahalagin handiegia eskatzen dute maila profesionalean erabiltzeko.